

2024. urtean jai-egitasmoak bideratzeko dirulaguntzen deialdia, lehia askeko araubidean

LEHENENGOA. Zuzenbideko oinarriak.

01. Audio Udalaren helburua da udalerrian jai-izaerako jarduerak egiteko pizgarriak ematea bertoko elkarten ehunari.

Dirulaguntza hauek 2023-2027 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude, zeina 2022ko azaroaren 28ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zen.

02. Jai-izaerako jarduera hauek kofinantzatzeko laguntzak dirulaguntza gisa emango dira eta araudi hau izango dute oinarri:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzei buruzkoa.

- Dirulaguntzen Lege Orokorra garatzeko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

- Audio Udalaren dirulaguntzak arautzeko udal-ordenantza (2021eko martxoaren 10eko ALHAO, 28. zk.), deialdi honi aplikatu beharreko oinarriak jasotzen dituena.

- Aplikagarria den araudi osagarria, eta eskumena duen udal-organoak deialdi honi dagokionez egiten dituen interpretazioak.

BIGARRENA. Objektua, zenbatekoa eta diruz lagun daitezkeen gastuak.

A.- Dirulaguntzaren objektua. - Zenbatekoa eta aurrekontu-eskuragarritasuna.

03. Deialdi honen objektua da Audio Udalak Nortasun Arloaren bitartez (Jaien Azpiarloa, Jai Zerbitzu Unitatea) kudeatzen dituen dirulaguntzak ematea, lehia askearen araubidean. Dirulaguntza horiek Laudion jai-izaerako jarduera eta egitasmoak antolatu, garatu eta gauzatzeko izango dira.

04. Xede horretarako, 40.000,00 euroko zenbatekoa dago udal-aurrekontuko “*Sanroketarako dirulaguntzak / Subvenciones fiestas San Roque*” aplikazioan (0403 3381 48119).

05. Xede hori lote hauetan zehaztuko da:

1. lotea: 2024ko San Prudentzio jaiak direla-eta gure udalerrian antolatu beharreko haur-danborradarako dirulaguntza (1.600 euro).

2. lotea: 2024ko herriko jaietako ekitaldietarako dirulaguntza (dirulaguntza izenduna izapidetzen den ekitaldiak lote honetatik kanpo geratzen dira) (38.400,00 euro).

06. Lote bakoitzean aurreikusitako zenbatekoak lehenengo aldiz banatu eta gero, lote bakoitzaren zenbateko

osoa agortu ezean, soberakina ere banatu egingo da, zazpigarren kapituluan xedatutakoaren arabera. Banaketa horiek egindako lehenengo banaketaren irizpide eta haztapen berberen arabera egingo dira, erakunde eskatzaile bakoitzak gehienez jaso dezakeen dirulaguntzaren zenbatekoa izan ezik, hori aurrekontu-aplikazioaren erabilgarritasunak eta zazpigarren kapituluan adierazitakoak mugatuko baitute.

Jai-egitasmo guztietan, Udalak eskura dituen baliabide teknikoak lagako ditu, eta jarduketetarako hornidura elektrikoa kontratatuko du, beharrezkotzat jotzen duenean eta eskura dituenean.

B.- Diruz lagun daitezkeen eta diruz lagundu ezin diren gastuak.

07. Diruz lagundutako egitasmoaren izaerarekin argiki bat egiten duten gastuetarako erabili beharko dira dirulaguntza guztiak, eta gastuak atal hauetakoren batean sartu beharko dira:

- Material inbentariaezinerako gastuak.
- Egitasmoak antolatzeko gastuak.
- Hizlari, konferentzialari, aditu, kultura- edo jai-laguntzaile eta abarretarako gastuak.
- Joan-etorrietako gastuak.
- Egitasmoa komunikatzeko gastuak.
- Dirulaguntzak izapidetzen laguntzeko gastu profesionalak, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.7 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Diruz lagundutako egitasmoari zuzenean lotuak dauden eta beharrezkoak diren beste gastu batzuk.

B1.- Diruz lagun daitezkeen gastuen mugak:

08. Joan-etorrietako gastuak kilometroko 0,29 euroko gehieneko kostuarekin zenbatuko dira, eta ez dira onartuko Laudion egin daitezkeen erosketak egiteko joan-etorriak. Ez dira kontuan hartuko erregaietarako fakturak. Joan-etorrien abiapuntua eta helmuga adierazi beharko da eta ibilbiderik zuzenena hartu beharko da beti.

09. Hizlari, konferentzialari, laguntzaile eta abarrei dietak edo minutak ordainduz gero, gehienez, 26,67 euro izango dira eguneko (gehi BEZa); 13,34 euro bazkari edo afari bakoitzeko.

10. Hizlari, konferentzialari, laguntzaile eta abarrei hoteleko egonaldia ordainduz gero, gehienez 35,00 euro izango dira gau eta gosari bakoitzeko (gehi BEZa).

B2.- Diruz lagundu ezin diren gastuak:

11. Jarraian zerrendatutakoak ez dira inola ere diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko:

- a.- 1. lotearen barruan, hezkuntza-arloko egitasmoak.
- b.- Bazkideei bakarrik zuzendutako txangoak eta jarduerak.
- c.- Laudio udalerritik kanpo gauzatu beharreko egitasmoak.

- d.- Jendearentzako sarbide librerik gabeko espazio pribatuetan gauzatutako jarduerak.
- e.- Udalak onartutako udal-planen kalterako diren ekintzak.
- f.- Dirulaguntzaren onuradunei (eskatzaile, elkarte eskatzaileko kide eta haien senideei) ordaindutako dietak, ezta egitasmoa garatzeko behar-beharrezkoa ez den beste ezein gastu ere.
- g.- Antolatzaile edota hizlarienezako opariak, ezta ordezkaritza-gastuak, protokolo-gastuak eta opariak eta antzekoek eragindako gastuak ere.
- h.- Gauzazko sariak, esaterako, edari alkoholduak, tabakoa eta antzekoak ematea, diruz lagundu ezin diren erosketa gisa jotzen direlako.
- i.- 300,00 eurotik gorako eskudiruzko sariak edo 250,00 eurotik gorako gauzazko sariak, zerga-araudian ezarritako % 19ko atxikipena aplikatu barik ematen direnak.
- j.- Mota guztietako isunak eta errekaruak, edari alkoholduak, tabakoa eta antzekoak erostea, diruz lagundutako egitasmoaren xedeak lortzeko ezinbestekoak ez diren gastuak, esaterako, banku-kontuen interes zordunak, interesak, errekaruak, zigor- nahiz administrazio-zehapenak eta prozedura judizialen ondoriozko gastuak.
- k.- Lehia askeko deialdietan ez dira diruz lagunduko udal-aurrekontuan zuzeneko dirulaguntza edo dirulaguntza izenduna emateko aurrekontu-aplikazio ekonomikoa duten egitasmo, jardura edo egintzak. Ez eta udal-arlo honetako edo beste bateko dirulaguntzen beste deialdi batera aurkeztu direnak, edo Udalak osorik edo zati batean kontratatu edo ordaindu dituenak ere.
- l.- Objektu hutsak erostea edo sortzea helburu duten jarduerak eragindako gastuak.
- m.- Aisialdian eta/edo denbora librean egiten diren jarduerak eta kirol-jarduerak eragindako gastuak, bai eta beren izaera eta funtsa kontuan hartuta jai-girokoak ez diren jardura guztiak ere.
- n.- Sexuagatiko edo 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotzen diren diskriminazio anizkoitzeko faktoreengatik diskriminatzaileak diren egitasmo, jarduerak edo egintzak. Legegintzako dekretu horren bidez onartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina.
- o.- Ikastetxeetan egiten diren jarduerak, baldin eta hezkuntza-komunitateko kideei soilik edo nagusiki zuzenduta badaude.
- p.- Jai-izaerarik ez duten jarduerak.
- q. Inbertsioak.

B3.- Aurrekontuan sartutakoez bestelako benetako gastuak.

12. Nolanahi ere, Laudio Udalak ez du inola ere bere gain hartuko ekitaldia gauzatzeak eragindako defizitik.

13. Baldin eta gastuen azken kitapena aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa bada, ez zaio hainbanaketarik aplikatuko dirulaguntzaren zenbatekoari, diruz lagunduko den egitasmoaren interes publikoa dela-eta, eta horrek ez du gainfinantzaketarik ekarriko.

14. Nolanahi ere, egitasmoa gauzatzeko eskuratu diren diru-sarrera guztiak batuta superabita sortzen bada, eskuratutako dirulaguntzaren edo dirulaguntzen arabera kalkulatu da egin beharko den diru-itzulketa. Dirulaguntza justifikatzeko unean, egitasmorako hasierako aurrekontuan aurreikusitako zeuden gastuak aldatzea eragin duten inguruabarren justifikazio-memoria erantsi beharko da.

HIRUGARRENA. Erakunde eta pertsona onuradunak.

15. Onuradun izaera edukiko du, indibidualki edo kolektiboki, dirulaguntza emateko oinarri diren jarduerak sustatu edo burutu duen nahiz jarduera horiek sustatuko edo burutuko dituen pertsona zein erakunde oro.

16. Onuraduna erakunde juridikoa denean, onuraduntzat joko da dirulaguntza emateko oinarri diren jarduera guztiak edo batzuk onuradun horren izenean egiteko konpromisoa hartzen duen erakundeari lotutako kide oro ere bai.

17. Ezingo dute onuradun izaera eduki Dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantzan edota azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean baztertzeko arrazoiren bat duten pertsonak edo erakundeak.

18. Pertsona fisiko edo juridikoen elkarteen kasuan, eskabidean nahiz emateko ebazpenean berariaz jaso beharko dira elkarteko kide bakoitzak bere gain hartu dituen burutze-konpromisoak, baita horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa ere, haiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Kasu horretan, elkarteen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, zeinak onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askiatsiak izango baititu. Elkartea ezin izango da desegin, harik eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, hau da, Dirulaguntzen Lege Orokorren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro arte.

19. Nolanahi ere, baldintza hauek bete beharko dituzte ikastetxeek, elkarreek eta jai-erakundeek:

- Egoitza soziala, helbide fiskala, ordezkaritza edo lantokia legez eratuta eta inskribatuta izatea Laudion, eta jarduera osoa edo zati bat udalerrian egitea.

- Legez eratua egotea eta honako erregistro hauetako batean inskribatuta egotea: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan edo dagokion administrazio-erregistro ofizial baliokidean.

- Estatutuetan jasota izatea irabazi-asmorik gabeko erakundea dela.

- Laudioko Elkarre, Herritarren Erakunde eta Talde Egonkorren Udal Erregistroan edo udal-erregistro baliokide batean inskribatuta egotea.

- Egitasmoak eta aurrekontuak botere publikoen kontrolpean jartzea.

- Gobernu-organoen osaeran nahiz funtzionamenduan barne-demokrazia dagoela bermatzea.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izandako ibilbidea egiaztatzea; edo beren estatutuetako helburuen, helburu sozialaren edo fundazio-helburuaren artean berdintasuna sustatzea egotea; edo diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatzeko duten pertsonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifiko izatea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako

indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera. Egiaztapen hori dirulaguntza ebatzi aurretik justifikatu beharko da, Balorazio Batzordeak zehazten duen epean, eta, betiere, Audio Udalak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko 2024ko berariazko prestakuntza eman ondoren.

Interesdunak berariaz aurka egiten ez badu, Audio Udalak ofizioz egiaztatuko ditu bere kabuz jaso daitezkeen datuak, hargatik eragotzi gabe datu horiek eskatzea, hala dagokionean.

20. Erakunde onuradunaren betebeharrak pertsonala da diruz lagundutako jarduerak bideratzea. Aurrekoaren ondorioz, jarduerak nagusiaren osagarri eta hura burutzeko beharrezkoak diren jarduerak baino ezingo dira azpikontratatu, eta, gehienez ere, dirulaguntzaren guztirako zenbatekoaren ehuneko 20ra iritsi arte.

21. Pertsona fisikoaren kasuan, Audion errolatutako pertsona fisikoek eduki ahalko dute dirulaguntzen onuradun izaera.

Interesdunak berariaz aurka egiten ez badu, Audio Udalak ofizioz egiaztatuko ditu bere kabuz jaso daitezkeen datuak, hargatik eragotzi gabe datu horiek eskatzea, hala dagokionean.

22. Nolanahi ere, kanpoan geratzen dira honako erakunde hauek:

- a. Audio Udalaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak, lehia edo kontratazio askeko beste dirulaguntza batzuk – dirulaguntzaren xedearekin bat datozenak – eta horiei lotutako dirulaguntzak dituztenak.
- b. Irabazi-asmorik gabeko erakunde juridikoak.
- c. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau-hausteengatik zehapena jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak.
- d. Sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsona fisiko eta juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako aldiaren, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena) eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako Legea) jasotzen duten bezala.
- e. Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean eduki behar duten arren halakorik ez duten enpresak, ez eta 50 langiletik gorako enpresak ere, baldin eta ez badute egiaztatzen neurriak ezarri dituztela sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz ezarritako baldintzetan, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak (emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena) eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak (Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako Legea) jasotzen duten bezala.

LAUGARRENA. Pertsona zein erakunde onuradunen betebeharrak.

23. Honako hauek dira pertsona zein erakunde onuradunen betebeharrak:

a.- Aurkeztutako eskabideari jarraikiz, dirulaguntza emateko oinarri izan den helburua betetzea, proiektua burutzea edo jarduera gauzatzea.

Jazotako edozein inguruabarren ondorioz jardueren lekua, data edota edukia aldatu behar direnean, erakunde onuradunak emandako dirulaguntzaren barruan hartzeko eskaera egin beharko du. Behin aldaketak jakinarazita, eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoan eraginik badute, Balorazio Batzordeak txostena emango du, eta, ondoren, hilabeteko epean, organo eskudunak egindako berrikuspenaren emaitza nahitaez jakinarazi beharko dio pertsona edo erakunde onuradunari, idatziz, eta beste ebazpen batean dirulaguntza emateko baldintza berriak eta zenbatekoa ere adierazi beharko ditu. Epe hori igarota, Laudio Udalak berrikuspen-eskaerari erantzuten ez badio, ulertu egin beharko da eskaera ez dela onartu.

Urgentziazko arrazoiak direla-eta, eskaera ezin bada egin jarduera baino lehenago, ahalik eta lasterren eman beharko da jazotako inguruabarren berri, eta, halaber, emandako dirulaguntzaren barruan kontuan hartzeko ere eskatu beharko da. Kasu horretan, inguruabar hori adierazi beharko da emango den ebazpenean, baita hasiera batean emandako zenbatekoa horren ondorioz aldatu beharko ote den.

b.- Erakunde onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantza ezarritako arauak bete beharko ditu, baita dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintza zehatzak ere.

c.- Erakunde onuradunak bere gain hartu beharko ditu proiektua edo jarduera antolatzeak dakartzan erantzukizunak, erantzukizun hori bermatuko duten aseguru-polizak kontratatu beharko ditu eta diruz lagundutako jarduera garatzeko behar diren baimenak lortu beharko ditu. Nolanahi ere, onuradunak une oro bete beharko ditu jarduera eta ikuskizun publikoei buruzko arauak, baita antolatutako egitasmoari aplikagarri zaizkionak ere.

d.- Erakunde onuradunak behar bezala iragarri beharko du egitasmoak finantzazio publikoa jaso duela, eta Udalaren logotipoak publizitatean hartzen duen espazioa ezingo da izan egitasmorako ekarpen txikiagoa egin duten beste babesleen logotipoek hartzen dutena baino txikiagoa. Zehazki, "*Babeslea: Laudio Udala*" edo "*Babeslea: Laudio Udala / Patrocina: Ayuntamiento de Llodio*" testua ipini beharko da diruz lagundutako egitasmoaren kartel, argazki edo bestelako komunikazio grafiko guztietan, udalerriko anagrama edo armarriarekin batera.

e.- Horrez gain, erakunde onuradunak beharrezko neurriak hartu beharko ditu sexuaren edo bestelako arrazoen ondoriozko diskriminazio oro ekiditeko, eta emakume zein gizonen sarbide eta parte-hartze orekatua ere sustatu beharko du.

Era berean, bereziki zaindu beharko da jarduerak sustatzeko erabiltzen den hizkera edota irudiak sexistak edo estereotipatuak izan ez daitezen.

f.- Euskararen erabilera. Erakunde onuradunak bere gain hartu beharko du Euskararen erabilerari buruzko udal-ordenantza betetzeko konpromisoa, eta, zehazkiago, ordenantzaren 21. eta 22. artikulua.

“21. artikulua. Udalak diruz laguntzen dituen kultura, kirol edo aisialdi jardueretan derrigorrez haiek iragartzeko erabiltzen den edozein euskarri behintzat euskaraz joan behar du. Ahozko propaganda denean ere, euskaraz izan behar du behintzat. Era berean, udalaren herri jabetzako lurretan aldi baterako jarriko den edozein instalaziok ere goragoko baldintzak bete behar ditu.

22. artikulua. Laudio udalak diruz laguntzen dituen ume eta gazteei begirako jarduerak euskaraz izango dira, salbu eta merkatuan horrelakorik ez badago. (...)”.

Hortaz, bereziki zaindu beharko da euskarak presentzia esanguratsua eta funtzionala duela programatutako jardueren fase guzti-guztietan, hala ahoz, nola idatziz.

g.- Emandako zenbatekoaren erabilera justifikatzea udal-ordenantzan eta deialdi honetan xedatutakoari jarraikiz.

h.- Jakinaraztea helburu bererako beste edozein laguntza ekonomiko lortu izana, dela publikoa, dela pribatua, eta, betiere, jasotako zenbatekoa esanbidez adierazita. Dirulaguntza jasoko dela ezagutu bezain pronto egin beharko da jakinarazpen hori, eta beti jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioa egin baino lehen.

i.- Organo emailearen edo erakunde laguntzailearen egiaztapen-jarduerak onartzea, eta kasu bakoitzean eskatzen zaion informazio nahiz dokumentazio guztia ematea.

j.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzea.

k.- Emandako dirulaguntza behar bezala justifikatzen dela bermatzeko, eta hala eskatuz gero, pertsona juridikoek edo erakunde laguntzaileek eraman behar dituzten kontabilitate-liburu eta -erregistro espezifikoak aurkezteko betebeharra, merkataritza-legeriak eskatzen duen moduan.

l.- Jasotako dirulaguntzaren erabilera egiaztatuko duten agiri guztiak gordetzea, baita elektronikoak ere, egiaztatze- eta kontrol-jardueratarako erabil daitezkeelako.

m.- Laudio Udalarekin lankidetzan aritzea hala eskatzen duenean, diruz lagundutako jarduerari buruzko azterlanak, inkestak edo estatistikak egiteko.

n.- Jasotako funtsak itzultzea, itzultzeko lege-arrazoiak daudenean eta, bereziki, honako kasu hauetan: erakunde onuraduna desegin denean, emandako dirulaguntza osorik edo partzialki erabili ez denean, edo emandako laguntza diruz lagundutako proiektuan edo jardueran jasotako helburuetarako erabili ez denean, puntu honetako a) letran ezarritako berariazko ebazpenik gabe.

BOSGARRENA. Eskabideak aurkeztea.

24. Eskaerak, behar bezala beteta, hogeita (20) laneguneko epean aurkeztu beharko dira, deialdi hau ALHAOn aurkeztzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatuta.

25. Eskabideak ebazteko eskumena duen organoari zuzendu beharko zaizkio, eta eskabide-orri normalizatuan aurkeztu beharko dira, egoitza elektronikoaren bidez, pertsona juridikoen kasuan.

Pertsona fisikoen kasuan, egoitza elektronikoaren bidez, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (udaletxeko beheko solairuan) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean zehaztutako moduetan.

26. Horretarako, Laudio Udalak emandako E06.02 eskaera-eredua erabili beharko da, zeina udalaren webgunetik deskarga baitaiteke.

27. Eskatzaile bakoitzak eskabide bat aurkeztu beharko du aurkeztu den lote bakoitzerako. Eskabide berean lote bat baino gehiago aurkeztuz gero, eskabidea ukatu egingo da, zuzentzeko errekerimendua egin ondoren.

28. Eskabidea behar bezala beteta ez badago, Laudio Udalak eskabidea zuzentzeko eskatuko dio erakunde eskatzaileari, administrazio-organoak horretarako eman beharreko hamar egun balioduneko epean, edo epe luzeagoan, kasuaren inguruabarrek hala eskatzen dutenean.

29. Eskabide-orri ez-normalizatuen bidez aurkeztu badira eskabideak, ukatu egingo dira, zuzentzeko errekerimendua egin ondoren.

30. Eskabide-orri normalizatuarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a.- Eskabidea sinatu duen pertsonaren nortasun agiri nazionala, pasaportea edo atzerritarrak identifikatzeko zenbakia, hala bere izenean diharduenean, nola elkarte edo erakunde baten ordezkari izan diharduenean. Azken kasu horretan, erakundearen legezko ordezkaria izan beharko da (erakundearen presidente izateagatik; Elkartean, Herritarren Erakundearen eta Talde Egonkorren Udal Erregistroan ordezkari gisa agertzeagatik; notario-ordezkari gisa egiaztatuta izanagatik; erakundeko organo eskudunaren aktetan jasotako izendapenaren bidez, dola Zuzenbidean baliozkoa den beste edozein metodo erabilita).

b.- Eskabidea elkarte edo erakunde baten izenean aurkeztu denean, elkarte edo erakunde eskatzailearen identifikazio fiskalerako zenbakia eta legalki eratua egotearen ziurtagiria.

c.- Memoria bat, proiektua zehatz-mehatz ezagutzeko aukera emango duena. Memoria horrek formatu librea izango du, eta, gutxienez, dirulaguntza eskatzen den jardueren programa bat izango du, honako hauek barne:

- Jarduera horien helburuak.
- Horietako bakoitzerako aurreikusi den lekua, data eta iraupena.
- Norentzat izango den jarduera eta zenbat pertsona izango diren onuradun.
- Jarduerak gauzatzeko giza baliabideak, baliabide teknikoak eta materialak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak edo portaerak.
- Euskararen erabilera.

d.- Dirulaguntzaren xede diren jardueren diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua, dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, diruz lagun daitezkeen gastuak bakarrik kontuan hartzeko.

e.- Erakundea ez badago Elkartean, Herritarren Erakundearen eta Talde Egonkorren Udal Erregistroan inskribatua, erregistroan inskribatzeko eskaera egin dela egiaztatuta beharko da, inskribatzeko eskaera aurkeztu

zenean sarrera-erregistroan eman zitzaion zenbakia adierazita. Nolanahi ere, dagokion dirulaguntza jaso ahal izateko, ezinbestekoa izango da erregistro horretan inskribatuta egotea.

31. Dirulaguntzaren ebaluazioa behar bezala egiteko beharrezkotzat jotzen badu, Udalak beste edozein agiri aurkezteko eskatu ahalko du.

SEIGARRENA. Balorazio-irizpideak.

32. Laguntzak esleitzerakoan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Aurkeztutako jarduera-programaren kalitatea eta egokitasuna baloratuko dira, 30 puntu gehienez, honako irizpide hauen arabera:
 - a) Udalak jaiaren antolaketarekin lortu nahi dituen helburuekin lotzea (kultura-sustapena, dinamismoa udalerri edo auzo jakin batean, talde jakin batzuei laguntzea, jai horretako Udalaren jarduera-programarekiko osagarritasuna, jardueraren interes orokorra, eta abar); gehienez 20 puntu.
 - b) Sormena edo berrikuntza-maila jardueran, xede duen publikoaren onarpen edo harrera handiagoa izan dezan, jardueraren aurreko emaitzak, beste udalerri batzuetan funtzionatu duten eredu arrakastatsuak, elementu berriak eta abar kontuan hartuta; gehienez 5 puntu.
 - c) Udal-baliabide teknikoaren beharra. Diruz lagundutako jarduera garatzeko udal-baliabide teknikorik behar ez duten pertsona edo erakunde eskatzaileek 5 puntu jasoko dituzte.
2. Aurkeztutako jarduera-programarekin euskara sustatzea baloratuko da; gehienez 10 puntu.
3. Aurkeztutako jarduera-programarekin emakumeen eta gizonen berdintasunezko partehartzea sustatzea baloratuko da; gehienez 10 puntu.
4. Adikzioen prebentzioa aurkeztutako jarduera-programan sartzea baloratuko da; gehienez 5 puntu.
5. Erakunde edo pertsona eskatzaileak aurkezten denaren antzeko jaietako jardueren antolaketan duen esperientzia baloratuko da; gehienez 10 puntu (2 puntu emango dira jarduera pareagarri bat antolatu duen urte bakoitzeko; gehienez 10 puntu).
6. Erakundeek ekarpen ekonomikoak lortzeko egindako ahalegina baloratuko da. Udalari eskatutako dirulaguntzaren proportzioa jardueraren guztizko aurrekontuarekiko, ehunekotan adierazita:

Ehuneko 20 edo txikiagoa (20 puntu)

Ehuneko 20,01 eta ehuneko 40 artean (15 puntu)

Ehuneko 40,01 eta ehuneko 60 artean (10 puntu)

Ehuneko 60,01 eta ehuneko 80 artean (5 puntu)

Ehuneko 80,01 eta ehuneko 100 artean (0 puntu)

7. Erabakiak hartzeko esparru guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko, guztiek gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia izatea baloratuko da, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikulua arabera (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena). Ordezkaritza orekatua dagoela ulertuko da lau kideetik gorako Zuzendaritza Batzordean edo zuzendaritza-organo baliokidean sexu bakoitzeko kideek % 40ko ordezkaritza dutenean gutxienez. Kide gutxiagoko zuzendaritza-batzorde edo zuzendaritza-organoetan, berriz, bi sexuek ordezkaritza dutenean. Bestalde, aurrekoaren neurri zuzentzaile gisa, honako hau kontuan hartuko da: emakumeek organoan duten ordezkaritza % 60tik gorakoa bada, emakumeek ordezkaritza handiagoa izatea helburu horrekin bat datorrela ulertuko da, Laudioko pertsona juridiko ludikoetan erabakiak hartzeko eremuetan ordezkaritza txikiegia izatearen ondorioz emakumeek historikoki izan duten desberdinkeria-egoera zuzentze aldera.

Programak puntuazio hau jasoko du: lau kideetik gorako Zuzendaritza Batzordean edo zuzendaritza-organo baliokidean sexu bakoitzeko kideek –edo, halakorik ezean, emakumeek– % 40ko ordezkaritza badute gutxienez, edo kide gutxiagoko zuzendaritza-batzorde edo zuzendaritza-organoetan bi sexuek ordezkaritza badute edo, halakorik ezean, emakumeek organoan duten ordezkaritza % 60tik gorakoa bada: 10 puntu. Bestela: 0 puntu.

ZAZPIGARRENA. Dirulaguntzen zenbatekoak eta horiek kalkulatzeko.

33. Dirulaguntzen zenbatekoak modu haztatuan kalkulatu dira, balorazio-irizpideak aplikatuta egitasmo bakoitzak lortutako puntu kopuruaren arabera; baina, betiere, egitasmo baterako ematen den gehieneko dirulaguntzak ezingo du gainditu egitasmoaren defizita, ezta eskatutako zenbatekoa ere.

34. Martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuan, ekitaldi publikoak gauzatzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzekoan xedatzen da jarduerak antolatzen dituen orok kontratatu behar duela erantzukizun zibileko aseguru. Hortaz, onartuko diren eskaera guztiei bermatuko zaie, gutxienez, aipatutako dekretuan xedatutako betekizunak bete ahal izateko beharrezkoa den aseguruaren kostuaren pareko dirulaguntza. Nolanahi ere, dekretu horretako 3. artikuluan xedatutakoa bete beharko da zenbatekoari dagokionez.

35. Ondoren, deialdi honetako balorazio-irizpideak aplikatuko dira, eta, lortutako puntuazioen arabera, eskaera bakoitzari lote bakoitzean proportzionalki dagokion dirulaguntzaren gainerako zenbatekoa kalkulatu da.

36. Ez dira inola ere emango lote bakoitzean eskatzaile bakoitzerako zehaztu diren zenbatekoek gaindiko diru-kopuruak, ezta eskatutakoez gaindikoak edo jardueraren superabita eragingo luketen zenbatekoak ere.

37. Loteetakoren bat hutsik geratzen bada, edo kontsignatutako zenbateko osoa banatzen ez bada, honako irizpide hauen arabera banatuko da soberan dagoen kopurua:

- a) Lote bakoitzetik soberan geratutako zenbatekoa lote horretan onartutako eskaeren artean banatu ahalko da. Banaketa hori proportzionalki egingo da, eta hasierako banaketarako aplikatu diren irizpide berberei jarraikiz.
- b) Baldin eta a) letran adierazitako banaketa egin ostean ere soberakina geratzen bada, hurrengo loteari gehitu ahalko zaio. Hori eginez gero, beste banaketa bat egingo da, proportzionalki eta hasiera batean aplikatutako irizpide berberei jarraikiz. 2. lotean soberakinik geratzekotan, 1. loteari gehituko zaio.

OCTAVO. Eskaerak aztertzea, ebazpenak ematea eta organo eskudunak.

38. Nortasun Arloko Balorazio Batzordeak aztertuko ditu urteko jai-egitasmoetarako aurkezten diren eta deialdi honetan xedatutako helburu nahiz irizpideak betetzen dituzten eskaera guztiak, banaka, eta 1. eta 2. loteetarako modu independentean. Organo hori arduratuko da eskaerak baloratzearaz, eta alkate-udalburuaren dekretu bidez izendatutako kide hauek izango ditu: Nortasun Arloari atxikitako hiru teknikari espezializatu, eta Udaleko arlo bereko edo beste arlo batzuetako hiru ordezkari. Batzordearen osaeran gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko da, 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena). Balorazio Batzordeko kideen abstentzioa eta errekusazioa Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluen arabera izango da.

39. Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasunen bat edo akatsen bat antzematen bada, hamar laneguneko epea emango da hori zuzentzeko, zuzentze-errekerimendua jasotzen den egunetik aurrera zenbatuta. Halaber, hamar laneguneko epea emango da prozedura izapidetzen den bitartean eska litezkeen dokumentuak eta txostenak aurkezteko, hala dagokionean. Bi kasuetan, aipatutako epe hori agortu ostean eskaera zuzendu ez bada, edo eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, eskaeran atzera egin dela ulertuko da, horretarako administrazio-ebazpena emanda.

40. Horren ostean, eta balorazio-irizpideak kontuan hartuta, Balorazio Batzordeak aurkeztutako eskaerei buruzko txostena emango du, zeinetan adieraziko baita eskaera bakoitza onartu edo ukatu egin den, eta zenbatekoa kalkulatzeko formulak aplikatuta eskaera bakoitzari eman zaion balorazioa. Balorazio Batzordearen ebazpenak ebazpen-proposamena behar bezala arrazoitu ahal izateko behar diren betekizunak jaso beharko ditu, gutxienez.

41. Organo eskudunak emango du ebazpena, alkate-udalburuak 2023ko ekainaren 27ko 1.152 Dekretuaren bidez egindako eskuordetza erabilita. Dagokion arloko zinegotzi ordezkariak, Balorazio Batzordearen txostena aztertu ostean, ebazpen-proposamena helaraziko dio organo eskudunari. Elementu hauek eduki beharko ditu ebazpen-proposamenak:

- Baztertutako pertsona edota erakundearen zerrenda eta baztertzeko arrazoiak.
- Onartutako pertsonen eta/edo erakundearen zerrenda eta haien hurrenkera arrazoitua, deialdi honetan ezarritako irizpideetan xedatutakoaren arabera.
- Dirulaguntzaren zenbateko espezifikoa eta xedea.

42. Deialdi honetan ezarritako irizpideak aplikatuz, Udalak beretzat gorde du aurkeztutako proiektu guztiei dirulaguntzak ez emateko eskubidea, ez osorik ez zati batean, baita urteko deialdia hutsik uzteko eskubidea ere, hala badagokio.

43. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, dagokion deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eta aplikatu beharreko udal-ordenantzaren 14.3 artikuluan zerrendatutako edukia jaso beharko du.

Gehieneko epea ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada, dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertu beharko dute interesdunek.

44. Dirulaguntza emateko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

BEDERATZIGARRENA. Jakinarazpena eta ordaintzeko modua.

45. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena egoitza elektronikoaren bidez jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, pertsona juridikoen kasuan.

Pertsona fisikoaren kasuan, metodo bera edo eskabidean adierazitako helbidea erabiliko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

46. Dirulaguntzari uko eginez gero, berariaz eta arrazoituta aurkeztu beharko da ukoa, gehienez ere hamabost eguneko epean, dirulaguntza eman dela jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Horretarako emandako epean uko egiten ez bazaio, onuradunak dirulaguntza isilbidez onartu duela ulertuko da.

47. Nolanahi ere, erakunde edo pertsona onuradunaren titulartasuneko banku-kontura transferentzia eginda ordainduko da. Diruz lagundutako jarduera interes sozialekoa bada, behin betiko ebazpena onesterakoan eta justifikazioa egin aurretik ordainduko da dagokion zenbatekoaren % 100, betiere, xedatutako baldintzak ez betetzeagatik erantzukizunak edota diru-itzulketak eskatzeko aukera gorabehera.

48. Dirulaguntza ez da ordainduko baldin eta erakunde onuradunak oraindik ez badu aurkeztu udal honek emandako eta ordaindutako beste dirulaguntzaren baten justifikazioa, horretarako epea amaitu ondoren, edo erakundeak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu hala eskatu zaionean.

HAMARGARRENA. Dirulaguntza kontuan ordaintzeko bermea.

49. Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun diren pertsona edo erakundeei ez zaie bermerik eratzea eskatuko, bermeak eratzetik salbuetsi daitezkeen kasuak ezartzen dituen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez onartzen da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua).

HAMAIKAGARRENA. Bateriaezintasunak.

50. Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein dirulaguntza motarekin, Laudio Udaleko arlo honek berak edo beste batzuek eman ditzaketen dirulaguntzekin izan ezik.

HAMABIGARRENA. Beste finantzaketa-iturri batzuk.

51. Xede bererako beste finantzaketa-iturririk badagoen edo ez adierazten duen zinpeko aitorpenean, horren zenbatekoa adierazi beharko da, eta, hala badagokio, baita ebazteke dauden laguntza-eskaerena ere.

52. Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin izango du diruz lagundutako egitasmoaren kostua gainditu, ez bakarrik, ezta beste dirulaguntza batzuekin batera zenbatuta ere.

53. Lortutako dirulaguntzen baturaren zenbateko osoa jardueran onartutako aurrekontua baino handiagoa bada, eman beharreko laguntza murriztu egingo da, soberakinari dagokion zenbatekoan.

54. Erakunde edo pertsona onuradunak Laudio Udalari jakinarazi beharko dizkio beste erakunde publiko, enpresa pribatu edota enpresa publikoek diruz lagundutako egitasmorako eman edo emango dizkioten gainerako dirulaguntza nahiz laguntza guztiak, haien berri izan bezain laster. Zenbatekoa ere adierazi beharko du.

HAMAHIRUGARRENA. Kontrol-bermeak.

55. Organo eskudunak egokitzen jotzen dituen administrazio-kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

56. Pertsona edo erakunde onuradunak ikuskapen horretan lagundu beharko du, eskatutako datuak emanez eta, hala badagokio, jarduerak egiten diren egoitzetarako sarbidea erraztuz.

HAMALAU GARRENA. Dirulaguntzen justifikazioa.

57. Pertsona juridikoek egoitza elektronikoaren bidez eta euskarri elektronikoan aurkeztu beharko dituzte dirulaguntzaren xedea bete dutela eta jasotako funtsak aplikatu dituztela egiaztatzeko justifikazio-dokumentu ekonomikoak zein ez-ekonomikoak.

Pertsona fisikoek Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (udaletxeko beheko solairuan) ere aurkeztu ahalko dituzte. Gainera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako bideak ere erabil daitezke dokumentu horiek aurkezteko.

A.- Dokumentazioa aurkezteko epeak.

58. Justifikazio-dokumentazioa aurkezteko hilabeteko epea emango da, diruz lagundutako egitasmoa amaitzen denetik aurrera zenbatuta, edo, geroagokoa denean, dirulaguntzaren emakidaren berri jasotzen duen egunetik aurrera zenbatuta.

59. Erakunde onuradunak berandutza eskatu ahalko du dokumentazioa aurkezteko epeari dagokionez. Berandutza-eskaera behar bezala arrazoitu beharko da, eta aurreko paragrafoan adierazitako epea agortu baino lehenago aurkeztu beharko da. Laudio Udalari dagokio arrazoiketa aztertzea eta dagokion ebazpena ematea. Ebazpenean esanbidez zehaztu beharko da aurkezteko epe berria.

60. Baldin eta justifikazioa aurkezteko epea agortutakoan erakunde edo pertsona onuradunak beharrezko dokumentuak aurkeztu ez baditu, hamabost egun naturaleko epe luzaezina emango zaio dokumentuok aurkezteko, eta jakinarazi egingo zaio epe horretan justifikazioa aurkeztu ezean, dirua itzultzeko eskatuko zaiola eta Legean xedatutako erantzukizunak ere egotz lekizkiokeela.

61. Aurkeztutako dokumentazioa osorik ez badago, edo nabarmenki akastuna bada, hamar laneguneko epe luzaezina emango zaio eskatutako dokumentazioa aurkeztu edota zuzentzeko. Hala egin ezean, dirua itzultzeko eskatuko zaio eta Legean xedatutako gainerako erantzukizunak ere egotz lekizkioke.

B.- Justifikazio-kontu sinplifikatua.

62. Legearen 30. artikulua 2. apartatuan xedatutakoaren ondoretarako eta dirulaguntzak arautzeko udal-ordenantza 22.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, 60.000 euroz beherako dirulaguntzetarako, dirulaguntza justifikatzeko balio juridikoa izango du apartatu honetan araututako justifikazio-kontu sinplifikatuak. Horretarako, Audio Udalak hornitutako justifikazio-kontuaren E06.15 eredua aurkeztu beharko da. Udal-webgunetik deskarga daiteke.

63. Justifikazio-kontu sinplifikatuak informazio hau jasoko du:

- a) Proiektu edo jarduera osoa gauzatu dela azaltzen duen memoria zehatza, lortutako emaitzak eta jarduerak berariaz aipatuta.
- b) Egitasmoaren gastuen zerrenda sailkatua, pertsona hartzekodunaren eta fakturazio-dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita.
- c) Dirulaguntza kalkulaturako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.
- d) Dirulaguntzaren justifikazio gisa aurkeztutako fakturak ordaindu izana egiaztatzeko zinpeko aitortpena.
- e) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoak eta jatorria adierazita.

64. Dirulaguntza justifikatzeko inprimakiarekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Dokumentu deskriptiboa, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikuluan eskatzen denaren arabera (legegintzako dekretu horren bidez onartzen da emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoan); egitasmoek emakume eta gizonen egoeran duten inpaktua ezagutarazteko, erakunde onuradunek *“sexuaren arabera banakatuta aurkez dezatela honako hauei buruzko informazioa: emandako zerbitzuaren azken onuradunak edo erabiltzaileak, pertsona titularrak eta langileak, eta dirulaguntza eragin duen zerbitzua emateko entitateak kontratatatu dituen langileak”*. Informazio hori hemen jasoko da: *“dirulaguntzak jasotzeko betebeharrak betetzen dituztela justifikatzeko memorietan”*. Era berean, aipatutako artikulua arabera, *“Dirulaguntza publikoen onuradun diren pertsona juridiko guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen direla egiaztatu beharko dute, bai eta hori egiaztatzeko ezarritako dokumentazio guztia aurkeztu eta justifikatu ere, eta irizpide sozial horiek egiaztatzeko jarduerak egiten utzi beharko dute”*.
- Jarduera iragartzeko erabilitako kartel, esku-orri, programa-orri, sare sozialetan erabilitako irudi eta abarren ale bana eta proiektuaren argazkiak eta bestelako dokumentu grafikoak.

Era berean, zuzenketak egiteari eta dokumentazio osagarriari dagokienez, aplikatzekoa den udal-ordenantzaren 22. artikuluari jarraituko zaio.

65. Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75.3 artikuluari jarraikiz, Nortasun Arloko langileek ekitaldi bakoitzean dirulaguntza jaso duten erakunde edota onuradunen laginketa egin ahalko dute, onuradun horiei gastuen jatorrizko egiaztagiriak aurkezteko eskatuta, barne hartuta ordainketa egin izanaren egiaztapena eta ordainketaren data.

Kasu horretan, burututako jarduerak egiaztatzeko beste modurik ez dagoenean baino ez dira onartuko hartu-agiriak. Nolanahi ere, hartu-agiria izenpetu duen pertsona ezingo da enpresari edo profesionala izan. Mota horretako egiaztagiriak ezingo dira inoiz 300,00 euroz gorakoak izan diruz lagundutako pertsona eta jarduera bakoitzeko, eta betiere Fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duen azaroaren 30eko 1619/2012 Errege Dekretua eta Arabako Foru Aldundiaren 2024 zerga-arauak beteko dituzte. Salbuespen gisa, lehiaketak antolatzen diren kasuetan, organo eskudunak kopuru hori handitzeko baimena eman ahalko du, sariak eskudirutan ordaintzeko.

Hartu-agirian, honako datu hauek jaso beharko dira:

- Izen-abizenak, IFZ eta pertsona jaulkitzailearen nahiz pertsona jasotzailearen helbidea.
- Burututako eragiketa edo zerbitzuaren azalpen xehea eta guztirako prezioa.
- PFEZ atxikipena (atxikipena dagokion zerga-agentzian sartu izana egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da).
- Lekua, data eta pertsona edo erakunde jasotzailearen izenpea.

66. Edozein arrazoi dela medio, diruz lagunduko den ekitaldia antolatzen duen taldeak kudeaketa profesionaleko zerbitzuren bat kontratatu behar badu dirulaguntza eskatzeko edota justifikatzeko behar diren izapideak egiteko, zerbitzu horri dagokion gastua jardueraren gastuei gehitu ahal izango zaie. Kontzeptu horrek ezin izango du emandako dirulaguntzaren zenbateko osoaren ehuneko 5 gainditu, eta zuzenean egon beharko du lotuta diruz lagundutako jarduerarekin, eta ezinbestekoa izan beharko du diruz lagundutako jarduera behar bezala prestatzeko edo gauzatzeko.

HAMABOSGARRENA. Dirulaguntza osoki galtzea edo itzulketa partziala.

67. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek beherago zehaztuko diren baldintzetako edozein betetzen ez badute, Balorazio Batzordeak txostena emango du, eta, ez-betetzeen larritasunaren arabera, organo eskudunak emandako zenbatekoak osoki edo partzialki (eta dirulaguntza ordaindu zen unetik aurrera legezkiekeen berandutze-interesak) itzuli beharrari buruzko ebazpena emango du.

68. Ondore horietarako, ez-betetze hauek hartuko dira kontuan:

- Dirulaguntza ematea eragin zuen jardueraren helburua osorik edo zati batean ez betetzea.
- Eskabidean edo aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak faltsutzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea.

- Bakarrik edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera zenbatuta, dirulaguntzaren zenbatekoak gainditzea onuradunak bideratu beharreko eta diruz lagundutako jardueraren kostua.
- Laudio Udalari ahalik eta lasterren ez jakinaraztea beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk jaso izana, Laudio Udalak dagokion likidazioa onartu arren.
- Oro har, pertsona edo erakunde onuradunei edota likidazioetan aurkeztu beharreko agiriei dagokienez, honako betebeharrak ez betezea: deialdi honetan, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta berau garatzen duen Erregelamenduan nahiz dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantzan ezarritako edozein betebeharrak.

69. Balorazio Batzordeak dirulaguntzen zati bat itzultzea proposatuko du, baldin eta jardueraren gastuen behin betiko likidazioa jardueraren gastuen hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan bada eta onuradunak ez badu aurretik berrikuspenik eskatu. Itzulketa kalkulatzeko, Balorazio Batzordeak proportzionaltasun-irizpidea aplikatuko dio aurkeztutako likidazioari.

70. Itzultzeko gainerako arrazoiei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan xedatutakoa beteko da.

HAMASEIGARRENA. Zehapenak.

71. Organo eskudunak dagokion zehapen-espedientea hasi ondoren –zeinetan, nolanahi ere, pertsona edo erakunde onuradunari entzungo zaion–, Balorazio Batzordeak, ez-betetzeen larritasuna behar bezala aztertu ostean, alkate-udalburuari proposatuko dizkio zehapenak; hain zuzen ere, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluaren II. kapituluaren jasotako zehapenak, hala diruzkoak, nola diruz bestelakoak. Zehapen horiek dirulaguntzak itzultzeko betebeharretik independente dira. Larritasunaren arabera, dirulaguntzaren zenbateko osoa itzuli beharra inplika dezake zehapena ezartzeak, aipatutako Legearen 59. artikuluekin eta ondorengoekin bat.

Zehapen-prozedura honek zehapen-arloan indarrean dagoen araudian ezarritakoa bete beharko du.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 56.c) artikuluan babestutako arau-hausteen kasuan (deialdi honetan eskatutako baldintzak ez betezea), emandako dirulaguntza % 5 murriztuko da bete ez den betekizun bakoitzeko.

72. Elkarte onuradunen administratzaileak edo legezko ordezkariak izango dira jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzultzeko betebeharraren erantzule subsidiarioak.

HAZAZAZPIGARRENA. Publikotasuna.

73. Dirulaguntzen Lege Orokorrean xedatutakoarekin bat, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratuko da dirulaguntzen deialdi hau. Aurrekoaz gain, udaletxeko iragarkien taulan eta ohiko udal-komunikabideetan ere argitaratuko da.



Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio
(Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P0103800I

Laudio, 2024ko ekainaren 20a